

Udalerria paradisu fiskalik gabeko lurralde aldarrikatzeko mozioa

..... (e)ko Udalaren bilkuran, udal-taldeak/taldeek mozio hau aurkeztu du/dute, udalerria **paradis fiskalik gabeko lurralde** aldarrikatzeko.

ZIOEN AZALPENA

Paradis fiskalek, munduko merkataritzaren erdia haietatik igarotzen den sistema opaku izaki, arazoak eragiten dituzte, tokian tokikoak eta orokorrak. Enpresa handiek paradisu fiskalen bidez zergak saihestea diskriminazio ekonomikoa da paradisu fiskalak erabili ezin dituzten eta/edo erabili nahi ez dituzten enpresa txiki eta ertainentzat. Izan ere, ia % 0 ordaintzen dute zergatan enpresa handiek paradisu fiskaletan. Paradisu fiskalen bidez zergak saihesteak diru-bilketa publikoa ere murrizten du, eta, beraz, zailagoa da zerbitzu sozialen gastua finantzatzea. Paradisu fiskalen opakutasunak erraztu egiten ditu kapital-zuritzeak, ustelkeria, krimen antolatua, mafiak eta talde terroristak finantzatzea, arma-trafikoa estaltzea eta giza eskubideen eta guztien ongiaren aurkako beste jarduera batzuk.

Paradis fiskalek eragiten dituzten ondorio larriez oharturik, nazioarteko zenbait eragile (G7, G20, ELGE, EB) neurriak hartzen ari dira zorrotzago kontrolatzeko paradisu horien erabilera, zergak saihesteko baliatzen baitituzte enpresa handiek. ELGEk, adibidez, hau agindu du: enpresa multinazionalak lan egiten duten herrialde guztietan dituzten filialen zerrenda bat aurkez dezatela, bai eta herrialde horietako bakoitzeko zerga-ordainketari eta jarduera ekonomikoari buruzko datuak ere (Country-by-country reporting). Espainiako gobernuak bat egin du enpresek 2016tik aurrera aurkeztu behar duten informazio-eskakizun horrekin, baina neurri horren irismena mugatu egin du, urtean 750 milioi euro baino gehiago fakturatzen duten enpresei bakarrik eskatzen baitzaie eta informazio hori publikoki zabaltzea eragotzi egin baitu.

Udalek murriztu egin dezakete paradisu fiskalen inpaktu orokorra, eta enpresen zerga-portaera jardunbide arduratsuetara bideratu, tokiko lehiaketa publikoak gehiago kontrolatuz, lehiaketok lehia libreko baldintzetan egin daitezzen eta ez *dumping* fiskalekoetan, eta baliabide publikoen jasagarritasuna zainduz.

Honenbestez, konpromiso hauek hartzen ditu Udalak:

1. Udalerria paradisu fiskalik gabeko lurralde aldarrikatzea, eta eman beharreko urratsak ematea ziurtatzeko lehiaketa publikoek zerga-portaera arduratsuak dituzten enpresen alde egingo dutela, zergak saihesteko paradisu fiskalak erabiltzen dituzten enpresen kalterako.
2. Mekanismoak aztertzea, detektatzea eta aktibatzea, zaila izan dadin zerbitzu publikoak emateko egoitza soziala paradisu fiskaletan duten enpresa pribatuak edo paradisu fiskaletan helbideratutako sare industrial baten parte diren sozietateak kontratatzea.
3. Gardentasun-neurri hauek betetzea:

- a. Mozio honen konpromisoa azaltzea udalerriko herritarrei, Oxfam Intermóni, udaleko talde parlamentarioei, autonomia-erkidegoko ekonomia-batzordeari eta autonomia-erkidegoko eta Espainiako gobernuei eta Ogasun Ministerioari;
 - b. Beste udalergi batzuei eta herritarrei jakinaraztea beren zerga-erantzukizunaren arabera puntu positiboak jaso dituzten edo jaso ez dituzten enpresei buruzko erabakien informazioa.
4. Konpromiso horiek gauzatzeko, behar diren lege-xedapenak bideratu behar dira, gehienez ere hilabeteko epean, mozio hau onartzen den egunetik kontatzen hasita.